



Otoiztegia

Ikasturte hasiera

ZUGAN KONFIANTZA OSOA

- **Kontutan hartzeko**

Otoiztegiara joan aurretik, tarte bat hartzea komeni da ikasleak prestatzeko, lasaitzeko eta ikasturtean zehar jarraituko ditugun jarraibideak argitzeko. Ahal bada, hobe lehenago tutorearekin hitz egitea eta taldeak zehaztea orekatuak izan daitezen, zein izango den lehen taldea erabakitzeko...

Azpimarratu egin beharko dugu otoiztegia ikasgelan bertan hasten dela. Ikasleak oihuka eta saltoka joaten badira, zaila izango da otoiztegian lasai sartzea eta egin behar dutena bermatzea.

1.- Agurra eta ongi etorria

Behin otoiztegian gaudela, agurtzeko modua gogoratuko dugu eta ikasle bakoitzak lasaitasunez egingo da bere lekura abiatu aurretik.

2.- Udako opor-garaiko oroimen laburra.

- Atsedean hartu al duzue? Ondo pasa al duzue? Zer egin duzue?
- Opor-lagun izan al duzue Jesus garai honetan edo ahaztuta utzi zenuten ikastetxean ekainaren 21ean?

- Ilusioz itzuli al zarete, ikasturte hau berezia izateko asmoz?
Hala izatea nahi du Jesusek eta bera prest dago zu laguntzeko, ondoan izateko, animatzeko, aholkatzeko eta gidatzeko zu berarentzat oso garrantzitsua baitzara.

- Nork gogoratu nahi digu non, norengan dagoen presente Jesus? (Jesusen presentziak gogoratu). Piskatxo bat azpimarratuko beharko dugu hau, ahaztuxea edukiko baitute: Hitzean (Biblia), gurutzean, kutxan (sagrarioan), kandela piztuan (Jesus berpiztua), bere izenean elkartzan garen gudan, geure bihotzean...

3.- Bihotzaren otoitza

Begiak ixtera gonbidatuko ditugu haurrak eta postura lasaia hartzera (sorbalda zuzen, eskuak belaunen gainean eta oinak lurrean). Horrela, gure bihotzari entzuteko aukera izango dugu eta bertan ditugun alaitasunak, ilusioak, ikasturte berri honetarako planak... ikusi eta Jesusekin partekatu. Katekistak proposatutako esaldiak errepika ditzakete ikasleek:

Jesus, hemen gaude berriro, otoiztegian.

Pozik gaude zure ondoan egon gaitezkeelako. Gauza asko dauzkagu zure kontatzeko, eskatzeko, eskertzeko, aurkezteko. Badakigu zuk entzun egiten gaituzula eta ondoan zaudela beti.

Eskerrak udako oporreatatik eta ikasteko eta formatzen joateko eskaintzen diguzun aukerarengatik. Gogoz ekin diogu lanari eta pozik gaude gure ikaskideekin. Eskerrak lagun berriak egiteko aukera ematen diguzulako eta baita gauza asko ikasteko ere.



Gehiago ezagutu nahi zaitugu ikasturte honetan zehar, gertuago sentitu eta zure lagun leialak izan. Ilusioz eta adorez jarraitu nahi zaitugu. Eskerrik asko, Jesus.

4.- Hitza entzuteko prestatu eta hitza aldarrikatu.

Háblame, Señor, que tu siervo escucha... (Kairoi)

https://www.youtube.com/watch?v=HLixHi7_8c8

Topaketaren miraria: Mt 14,24-34

Imajina ezazu itsasontzi batean zoazela eta itsasoa harro-harro dagoela. Ez baduzu sinesten igeri ongi egin dezakezunik, segurtasun eza izango duzu. Baita ez bazara kapitainarekin fidatzen ere.

Segurtasun eza duzunean, zure burua defendatzeko neurriak hartzen dituzu.

Ez bazaude ziur igeri egiteko zure gaitasunarekin, eskuak mugitu eta mugitu arituko zara (beharrezkoa ez bada ere).

Ez bazara fidatzen zurekin joan daitekeen lagun batekin eta berak eman diezazukeen laguntzarekin, urduri agertuko zara eta beldurtu egingo zara.

Horixe gertatu zitzaion Pedrori Jesusekin, Jesusen jarraitzaile sutsuetako bat bazen ere:

***Hitza entzun aurretik, gogoratu egingo dugu ahotsa-ena dela (irakurriko duenarena), baina hitza, berriz, Jainkoarena.**

Salto egin zuen Pedrok itsasontzitik eta, ur-gainetik ibiliz, Jesusengana abiatu zen. Baina haizearen indarra ikusita, beldurtu egin zen eta, hondoratzen hasia zenez, oihuka esan zuen:

- *Jauna, salba nazazu!*

Jesusek eskua luzatu, heldu eta esan zion:

-Sinesmen gutxiko gizona! Zergatik izan duzu hainbeste zalantza?

Itsasontzira igo eta haizea baretu egin zen. Bertan zeudenak ahuspeztu egin zitzaizkion Jesusi esanez:

- *Benetan, Jainkoaren semea zara! (Mt 14, 29-34)*

JAUNAK ESANA



(Material osagarri gisa eskaintzen den materialean agertzen den abestietako bat entzun daiteke. Edo egokiagoa gerta daitekeen besteren bat).

* **Hitza eskertuko dugu. Bibliari muin eman diezaiokete ikasleek ondokoa esaten duten bitartean: “Eskerrak, zuri, Jauna”.**

Zer kontatuko digu Jesusek oraintxe entzun dugun hitzean?

Zer gertatu zitzaion Pedrori? Nola jokatu zuen?

Nola erantzun zion Jesusek?

Inoiz sentitu al duzu segurtasun eza zeure buruarengan sinesten ez zenuelako? Noiz? Zer gertatu zen?

Inoiz galdu al duzu norbaitengan zeneukan konfiantza? Zergatik? Nola sentitu zinen?

Fidatzen ala zara Jesusekin? Sinesten al duzu, Pedrorekin egin zuen bezala, beti lagundu, animatu eta indartu egiten zaituela aurrera egiteko?

Zer eskatuko zenioke ikasturte berri honen hasieran? Esan iezaiozu zure bihotzean. Jesus entzuten duzu.

5.- Ikasturteko kartelaren aurkezpena

Ezaguna duzu dagoeneko aurtengo goiburuaren kartela. Pasilloetan edo gelako egutegian ikusi ahal izan duzu. Seguraski, ikasgelan jarrita izango duzue dagoeneko kartela eta hitz egin duzue hari buruz. Gogoan al duzu goiburua?

Begira, hemen dugu kartela. Erreparatu ongi bertan agertzen diren elementuetan: letrak, marrazkiak, imajinak, koloreak, gorputz adierazpenetan. Zer iradokitzen dizue?



Goiburua: “Zugan konfiantza osoa”. Hiru jarrera:

1.- Konfiantza zure buruarengan. Zaila gertatuko zaizu aurrera egitea ez baduzu konfiantzarik zure buruarengan, zure aukera eta gaitasunetan.

2.- Konfiantza besteengan. Ez gara bakarrik bizi, ez gara irlak. Beste pertsonekin batera bizi gara eta haiengan sinets dezakegu eta behar dugu eta baita gure konfiantza eskaini ere. Gurekin fidatzeko aukera eskaini behar diegu ondokoei.

3.- Konfiantza Jainkoarengan. Bibliako pasartean ikusi ahal izan dugu. Ondoan dugu beti Jesus, konfiantza eskainiz, garena baloratzuz eta gure ahuldadeak eta mugak lagunduz.

Haurra: Gutako edonor izan daiteke.

Pertsona heldua: Bere konfiantza eskaintzen digun edozein pertsona izan daiteke (besteak, ondokoak).

Eskailera: Agertzen zaigun edozein proiektu edo helburu izan daiteke. Zaila bada ere, konfiantza badugu geure buruarengan eta ondokoek eskain diezaguketen laguntzan, errazago gertatuko zaigu lortzea.

Ilargia/zerua: Jainkoa irudika dezake. Eskailerak igotzera gonbidatzen gaitu, gorago begiratu eta iristera, gu geu eta gure errealitatek haratago joatera eta Jainkoarengana hurbiltzera.

6.- Elkarren arteko otoitza

Esker-otoitza egite proposatzen dugu. Nahi duen ikasleak ozen egin dezake bere otoitza eta denok batera errepikatu bukaeran: “Eskerrak, Jesus”.

Horrela has gaitezke: Eskerrak, Jesus,-agatik.

7.- Gure Aita (Eskuak elkartuta alfonbra inguruan)

8.- Esker ona eta agurra.



Hain corazonista den esaldi honekin amai dezakegu:

-Jesusen Bihotz ona,
+ Zurekin fidatzen naiz.





MATERIAL OSAGARRIA

- a) Bibliako irakurgairen ondorengo hausnarketa laguntzeko abestiak:
- . No temas, vive tu fe: https://www.youtube.com/watch?v=6U3sH1_dT5A
 - . Puedo confiar en Dios: https://www.youtube.com/watch?v=_6vhFt-MfLU
 - . Paz en la tormenta: <https://www.youtube.com/watch?v=ZvA0uO66qoc>
- b) Testu bera erlijioko saioan lantzeko lantzeko beste aukera: Marrazki bizidunak
https://www.youtube.com/watch?v=HTtqrD_L5XU
- c) Bideoa: La verdadera fe en Dios: <https://www.youtube.com/watch?v=6DBaTaBQLDY>
- d) Ikasgelan egiteko ekintza. Otoiztegiaren ondoren.

Goiburuaren kartel txiki bat eskaini diezaiokegu ikasle bakoitzari plastifikatuta etxera eraman, gurasoei erakutsi eta ikasturteko goiburua eta hiru jarrerak gogoraraziko dizkien leku jakin batean gorde dezaten:

- 1.- Nire buruarengan konfiantza izan nahi dut.
- 2.- Besteengan konfiantza eduki nahi dut.
- 3.- Jainkoarengan konfiantza handitu nahi dut.